

**IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN IBILGETU, BERTATIK JASO ETA
ONDOREN ZAINZAPEAN EDUKITZEKO ZERBITZU PUBLIKOAGATIK
ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
FISKALA**

2018ko urtarrilaren 1etik

Plenoak onartuta 2017ko irailaren 26an

(GAO. 242 zk., 2017-12-21.)

Aurkibidea

I. Xedapen orokorra	3
1.artikulua	3
II. Zerga egitatea	3
2. artikulua	3
III. Ordaintzeko obligazioa	3
3. artikulua	3
IV. Subjektu pasiboa	3
4. artikulua	4
V. Zerga oinarri eta kuota	4
5. artikulua	4
VI. Kudeaketa eta diru bilketarako arauak	4
6. artikulua	4
7. artikulua	4
8. artikulua	4
VII. Ezarri beharreko arau orokorrak	5
9. artikulua	5
VIII. Amaierako xedapena	5
Eranskina	5

I.- XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.

Toki Ogasunak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43.etik 50.era bitarteko artikuluetan xedatutakoari jarraiki, tasa bat ezartzen da bide publikoan dauden ibilgailuak erretiratzeko zerbitzuagatik edo hiri barruan zirkulatu ahal izateko aski larritzat jotzen diren kasu batzuegatik, gaizki edo neurrigabekeriaz aparkatuak egoteagatik eta interesatuak ibilgailua jaso artean zaintzeagatik.

II.- ZERGA EGITATEA

2. artikulua.

Ordenantza honetan erregulatutako ordainarazpenaren helburua ondokoa da:

A.- Jarraian adierazitako ibilgailuak bide publikotik erretiratu eta horretarako prestatutako gordailura eramateko zerbitzua eskaintzea:

- a) Zirkulazio librea kaltetzen, oztopatzen edo trabatzen duten ibilgailuak, zirkulaziorako arriskugarri gerta daitezkeenak edo bide publikoan abandonaturik daudenak.
- b) Debekaturiko lekuetan aparkaturik daudenak. Debekatutako lekutzat joko dira iraunkorki horrela kontsideratuak daudenak, eta, halaber, bigarren ilaran egindako aparkamenduak.

B.- Bide publikotik erretiratutako ibilgailuen edo beste edozein arrazoiengatik udal gordailuan daudenen zaintza.

C.- Legean aurreikusitako kasuetan ibilgailua ibilgetzea.

III.- ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA

3. artikulua.

Ordaintzeko obligazioa Trafikoko Legea, Zirkulaziokoa eta Bide Segurtasun Legea aplikatzerakoan sortzen da. Eta eragina izango du trafikoko agenteak ibilgailua mugitzea agindurik, gidariak edo jabeak neurri hori sortarazten duten okerrak zuzentzen ez dituenean, edota, ibilgailuren bat bidean utzita egonik, zirkulazioa eragotzi edo zirkulazioa bera arriskutan jarri edo larriki galarazten duenean.

IV.- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

Subjektu pasiboak dira, eginiko urrapenaren arabera, bidezkoa den isuna kontuan hartu gabe, izendatutako Tarifak ordaintzera beharturik dauden erretiraturiko ibilgailuen jabeak.

Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira erretiraturiko ibilgailuen jabeak, legez kontrako erabileren kasuetan izan ezik.

V.- ZERGA OINARRIA ETA KUOTA

5. artikulua.

Zerbitzuaren kostuak zehaztuko du zerga oinarria eta garraioaren, egunaren eta zatikien arabera zehazturiko zenbatekoaz adieraziko da, zerbitzuaren eta ibilgailu motaren arabera, ordenantza honen eranskinean ezartzen den moduan.

VI.- KUDEAKETA ETA DIRU-BILKETARAKO ARAUAK

6. artikulua.

Garabia ibilgailua aparkaturik dagoen lekura joate hutsagatik sortuko da tasa. Ibilgailua erretiratzeari ekin aurretik ordaintzen bada tasa, %50eko hobaria ezarriko da. Edonola ere, dagokion frogagiria emango da.

7. artikulua.

Ordenantza honen bidez ezartzen den eskubide ordainarazpenak ez du salbuesten, zirkulazio nahiz Udaltzaingoaren arauak urratzeagatik bidezkoak diren zigorrak ordaintzea.

8. artikulua.

1.- Tasak Udaltzaingoaren bulegoan ordainduko dira.

2.- Zaintzapean dagoen ibilgailua jabeari itzultzeko, ibilgailua erretiratzen hasi berria denean erretiratze lana bertan behera uzteko edo ibilgailua ibilgetzeko jarritako zepoa kentzeko, ordainduak egon beharko dira zerbitzuak jasotzeagatik sortutako tasak, zerbitzu guztiak emanda daudela ulertzen baita; edota neurri hori kendu ahal izateko, bermatu egingo da alde aurretik ordaindu egingo direla, kalterik egin gabe defentsarako dagokion eskubideari, eta gastua Administrazioak neurri hori hartu izanaren arduradunari egozteko aukerari.

VII. EZARRI BEHARREKO ARAU OROKORRAK

9 artikulua.

Ordenantza honetan aurreikusten ez diren kasuetarako, Trafikoko Legean, Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legean eta aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoa aplikatuko da.

Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokionez, eta, baita zerga urrapenak kalifikatzeari, eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzeari dagokionez ere.

VIII.- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz, 2016ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA

Kontzeptua	Euro
a) Ibilgailua erretiratzea	
Bizikletak eta ziklomotoreak, bakoitzarengatik	12,65
Motozikletak, trizikloak, moto-karroak eta antzeko beste ibilgailuak, bakoitzarengatik	25,45
Turismoak eta 3.499 kg-ko tara arteko ibilgailuak, bakoitzarengatik	82,30
Kamionetak, kamioiak, traktoreak, erremolkeak, autobusak eta 3.500 kg-ko taratik gorako tonelajea duten ibilgailu bakoitzarengatik	173,90
b) Erretiratutako Ibilgailuen depositua eta zaintza	
Bizikletak eta ziklomotoreak, egun edo zatiki bakoitzarengatik	5,55
Motozikleta, trizikloak, moto-karroak eta antzeko bestelako ibilgailuak, egun edo zati bakoitzarengatik	8,85
Turismoak eta 3.499 kg-ko tara arteko tonelajea duten ibilgailuak, egun edo zati bakoitzarengatik.	16,55
Kamionetak, kamioiak, traktoreak, erremolkeak, autobusak eta 3.500 kg-ko taratik gorako tonelajea duten ibilgailuak, egun edo zati bakoitzarengatik	35,30